

zakilixut

© Olariagak



ATZEMAKOZ AURRERA

Jakes Goikoetxea | HERNANI

Sagardo egunak bizi ditugu. Tradizio, negozio, gastronomia eta parrandaren arteko nahasketa. Eta sagardoaren zurrumbilo horretan, ekimen berri bat aurkeztu zuten atzo: Sagarrondotik 2003, *Sagardoaren lurraldea* osatzen duten udalak bildu (Astigarraga, Hernani, Usurbil eta Urnieta) eta elkarrekin antolatuko duten sagardoari eskainitako asteburua. Martxoaren 21, 22 eta 23etan izango da, Hernanin. Sagardoa izango da oinarria, baina sagardoaren eta sagardotegien inguruan bai batetik baldin antolatuko dituzte.

«Sagarrondotik ekimena sagardoaren kultura bultzatzeko eta bermatzeko sortzen da», Jon Garmendia ekimenaren bozeramailearen esanetan. «Sagardoaren ispilu eta erreferentzia puntu garrantzitsua bihurtzea da asmoa». Sagardoaren bilgunea izan nahi du Sagarrondotik festak, sagardoarekin lanean ari direnen topaleku. Euskal Herrikoak eta atzerrikoak, antolatzaileek gonbidatu egin baitituzte Txekia, Hungaria, Irlanda, Gales, Asturias eta Galiziako sagardogileak.

Topaleku eta erakusleho izan nahi du Sagarrondotik festak. Euskal Herriko sagardo txapelketa antolatu nahi dute egun horietan, sagardo dastaketa erraldoi batekin batera; baita sagardoaren museo bat ere, sagardoaren egiteko prozesua ondo ezagutze-



JON URBE / ARGAZKI PRESS
Sagarrondotik ekimenaren antolatzaile eta bultzatzaileak, atzo.

ko. Janaria ere ez da faltako: bi bufalo eta txekor bat erreko dituzte asteburuan, eta Euskal Herriko produktuen dastaketa antolatuko dute. 2.000-3.000 lagun bildu nahi dituzte bazkari batean.

Kontzertua, pilota eta haurrentzako jaialdia

Sagardoaren aitzakian eta haur, gazte eta helduak sagardoaren mundura hurbiltzeko egitarau zabalago osatu baitute martxoak lau garren astebururako Hernanin. Belaunaldien uztarketa bultzatu nahi dutela azpimarratu zuen Jon Garmendiak. Gazteentzat kontzertua izango da: Desmond Dekker (Jamaika), Raimundo Amador (Andaluzia), Kiko Veneno (Andaluzia), Fundacion Tony Manero (Katalunia), Kuraia (Euskal Herria), La Polla (Euskal Herria)... «Gazteen bilgunea sortu nahi dugu musika eta kultura baliatuz», dio Garmendiak. Gainera, azpiegitura bereziak antolatuko dituzte gazteentzat: lo egiteko lekuak, dutxak, motxilak gordezko bildegia... Haurrentzat ere antolatu dute jaialdia: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Txan magoa, Euskadi Gazteko disko festa... izango dira. Helduagontzat, berriz, profesionalen pilota partida osatu dute.

Webgunea ere aurkeztu dute antolatzaileek, baina informazioa ez dago oraindik eskuragarri (www.sagarrondotik.com).

Sagardoa topaleku

Sagardoa eta festa uztartuko dituen asteburua antolatu dute Hernanin martxoaren 21, 22 eta 23rako

